



ALBOAN

www.alboan.org



Espezializatu al daiteke lankidetza deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ALBOAN Lankidetza koadernoak

1. Lankidetza deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetza deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakoren bila, lankidetza deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetza deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetza deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

**Espezializatu al daiteke
lankidetzaren deszentralizazioa
deszentralizaziorako laguntzan?**



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxe: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Alicia Aleman Arrastio

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: Bi-1273-2014

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere
helburu komertzialik ez badu eta iturburua apaitzen baldin bada.

Aurkibidea

1. Sarrera: “etendako” eztabaida baten terminoak	5
1.1. Zeri esaten diogu deszentralizaziorako laguntza?	8
2. Deszentralizazio-prozesuak: ikuspegi teorikoak eta esperientziatik ateratako irakaspenak	11
2.1. Deszentralizazioaren aldeko argudio teorikoak	11
2.2. Esperientziaren bidez ikasitako irakaspenak	12
2.3. Lankidetza deszentralizazioan	14
2.3.1. Bi estrategia-mota lankidetza-agentzietan	14
3. Espainiako lankidetza deszentralizatuaren ahalmenaren azterketa	19
3.1. Espezializaziorako abiapuntuak	19
3.2. Baldintzen mapa	20
3.2.1. Lehenbiziko baldintza: Sendotasun instituzionala	21
3.2.2. Bigarren baldintza: Joku-arauak	25
3.2.3. Hirugarren baldintza: Egindako ibilbidea	27
4. Ondorioak	35
5. Eranskina	39
6. Bibliografia	41

1. Sarrera: “etendako” eztabaida baten terminoak

Lankidetza deszentralizatuari buruzko interesa **atzean geratu** da krisi ekonomiko eta finantzarioaren larritasunagatik. Krisi horrek politika publikoetan izan ditu ondorioak, batez ere garapenerako nazioarteko lankidetzarako politiketan, dela gobernu zentralak bultzatutako lankidetzan, dela erkidegoetako eta tokiko gobernuek bultzatutakoan. Jada bost urte dirauen krisiak, sektorearen baliabide finantzarioak eta giza baliabideak urritzeaz gain –sektoreak hazkunde handia izan zuen aurretik eta sendotze-prozesua hasia zuen–, atzerakada ekarri du eraginkortasunari eta espezializazioari buruzko eztabaida hasiberriaren terminoetan.

Testuinguru horretan, lankidetza deszentralizatuaren eraginkortasunari, koordinazioari edo espezializazioari buruzko eztabaida lasai, sakon eta informatua alde batera geratu da, honako hauen ondorioz: murrizketen tamaina eta gogortasuna; zifrei buruzko nahaste handia; eta adierazpen nolabait erretorikoak, dela ibilbidea berreskuratzeari buruz, dela lankidetza deszentralizatuaren egokitasunari buruz. Hortaz, hauek izan dira lankidetza deszentralizatuari buruzko eztabaidaren ezaugarriak azken bost urteetan: presak, eta jarrera defentsibo eta erretorikoen nagusitasuna. Jarrera horietan, bigarren mailan utzi dira lankidetzaren espezializazioari buruzko kezak.

Hori ez dator bat lankidetza deszentralizatuaren espezializazioari buruzko eztabaidaren hasieran, nazioarteko garapenerako Espainiako lankidetzaren hedatzealdian erabilitako terminoekin. Hain zuzen, 2005-2009 aldian –lankidetza deszentralizatuaren eraginkortasunari buruzko eztabaidaren terminoen jarraipena egiten hasi zen **ALBOAN** aldi horretan–, lankidetza deszentralizatuaren espezializazioari

buruzko interesa adierazi zen erreferentziazko zenbait txostenetan eta sektoreko adituen artean. Zenbaitetan, balio erantsia, ezaugarri bereizgarria eta/edo konparaziozko abantaila¹ zela ere adierazten zuten.

2005ean, hau adierazi zen Intermón-Oxfamek laguntzaren errealitateari buruz urtero argitaratzen duen txostenean: “... *lankidetza deszentralizatuaren boometik igarotako 10 urteetan aurrerapenak egin badira ere, oraindik ere ez dira lankidetza horren ezaugarri bereizgarriak guztiz baliatzen: herritarrekiko hurbiltasuna; GGKE-ek parte-hartze handia izatea beren baliabideen kudeaketan; interes politikoek presentzia txikiagoa izatea; esperientzia, deszentralizazio politikoko eta eskumenen deszentralizazioko prozesuetan; eta esperientzia, herritarrengandik hurbilen dauden arazoen kudeaketan*” (Intermón-Oxfam 2005:1).

Bi urte geroago, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) bere iritzia eman zuen Espainiako 2007ko lankidetzari buruzko txosten batean, eta honako hau adierazi zuen argi eta garbi: “*bere laguntzaren arreta konparaziozko abantailan jartzeko ahaleginean, Espainiak hauek kapitalizatzen saiatu beharko luke: zenbait eragilerekin parte hartzeko ahalmen eta esperientzia egiaztatuak, eta gobernuarekin eskualde-mailan zein tokiko mailan lan egiten duten eragile deszentralizatuaren balio erantsia*” (OCDE-DAC 2007:16). 2011n, ELGAK berriz nabarmendu zuen nazioz azpitiko agintarien ekarpena garapenerako laguntzarako jardueretan, esan baitzuen agintari horiek aukera ematen dutela herritarrek parte hartzeko, eta “*garapenaren arloko arazoen kontzientziazio-maila eta ezagutza*” areagotzea sustatzen dutela (OCDE-DAC, 2011).

Beste ikuspegi zertxobait desberdin batetik (kanpo-ekintzaren eta nazioarteko harremanen esparrutik gertuago dagoena), eta Espainiako lankidetzaren hedatze-aldiarekin bat, Espainiako lankidetza-sistemaren berezitasunetik abiatutako diskurtsoa nabarmendu zen –berezitasun horren oinarri dira sistemaren beraren ezaugarriak eta izaera, sistema oso deszentralizatua baita–, non lankidetza deszentralizatuak deszentralizaziorako laguntzan izan zezakeen ahalmena adierazten zen. Are gehiago, zenbaitek iradoki zuten Espainiako kanpo-ekintzaren “*lidergotza-nitxoa*” **instituzionalitatea eraikitzea** izan zitekeela. Izan ere, Espainiako adibidea punta-puntakoa ez bazen ere, eredu horrek “*nahikoa arrakasta izan zuen gobernagarritasun demokratikoaren alderdi garrantzitsu guztietan: sistema*

¹ Lankidetza deszentralizatuaren espezializazio-ahalmenari buruz hitz egiteko, zenbait egilek honako termino hauek aukeratu dituzte: balio erantsia, balio bereizgarria, konparaziozko abantaila, lehiarako abantaila, ezaugarri bereizgarria eta singularitasuna.

demokratikoa, zuzenbide-estatuia, kudeaketa publikoa eta merkatu-instituzioen garapena” (FIIAP 2008:78).

Bestalde, estatuz azpitiko eragileek nazioarteko sisteman gero eta rol garrantzitsuagoa jokatzearen ideian errotoetako ikuspegi batetik, alde anitzeko gobernantza eraikitze beharra azpimarratzen hasi ziren, eta gobernantza horretarako, bereziki garrantzitsutzat jotzen zen nazioaz azpitiko gobernuak garapen-helburuak (Milurtekoko Garapen Helburuak, urte haietako adierazpenetan) betetzeko izan zezaketen eginkizuna. Pentsatzen zen gobernu deszentralizatu horien mende dagoela, hein handi batean, zerbitzu publikoen kudeaketa, eta estatuak ez direla gai beraiek bakarrik zerbitzu horiek behar bezala emateko. Beraz, tokiko administrazioen gaitasunak sendotzearen esparrua agertzen hasi zen, Espainiaren lankidetzaren deszentralizatuaren lehentasunezko esparruetako gisa.

Hala ere, beste batzuek, eszeptikoagoek, ez zuten uste berezitasun horrek berehalako “konparaziozko abantailarik” sortzen zuenik deszentralizazioaren esparruan. Ildo horretatik, lankidetzaren deszentralizatuaren ereduaren azterketa enpirikoenak nabarmentzen ziren. Azterketa horietan, izatezko ibilbidearekin, gaitasunekin eta motibazioekin lotutako mugak agerian jartzen hasi ziren.

Beraz, Espainiako lankidetzaren hedatze-aldian, lankidetzaren deszentralizatuaren espezializazioaren inguruko eztabaidaren terminoetan, iritzi baikorrak eta ezkorrak plazaratu ziren: baikorrak, sistemaren ahalmenak eta berezitasunek eragindakoak, eta ezkorrak, berriz, eratuz joan zen ereduaren analisi enpirikoa-goetan oinarrituak. Nolanahi ere, eztabaidak aurrera egiten jarraitu zuen, eta hauek hobeto ulertzeko urratsak eman ziren: lankidetzaren deszentralizatuaren sistema, oro har, eta espezializazioak deszentralizazioaren esparruan zer dakarren, bereziki.

Ildo horretatik, Europar Batasuna (EB)-Latinoamerika Lankidetzaren Deszentralizatuaren Behatokia Jean Pierre Maléren ekarpenak bereziki azpimarratzekoak dira. Jada 2007an, nabarmentzen zuen bereizi egin behar zirela *“eragile zentralak egiten dituzten deszentralizazio-programak eta tokiko administrazioei babes teknikoa ematekoak, batetik, eta beraien zuzeneko esperientzien, babes instituzional eta politikoaren, eta abarren ekarpena egin dezaketen tokiko gobernuen zuzenean eta modu autonomoan ezarritako harremanak, bestetik”*. Gogoeta horiek lankidetzari eta garapenari buruzko azterketen nazioarteko literaturan agertzen ziren eta ageri diren eztabaida- eta analisi-terminoekin lotzen ziren, horietan nabarmentzen baita beharrezkoa dela esku-hartzeen taldeak eta haien ezaugarri

desberdinak bereiztea, dela esku-hartzen duten eragileei erreparatuta, dela esku-hartzearen helburu orokorrak kontuan hartuta.

Azkenik, 2013an, bost urteko krisi sakonaren ondoren, egiaztatu daiteke Espainiako lankidetza deszentralizatuaren espezializazioari buruzko eztabaidaren terminoetan atzerakada dagoela eta termino horiek bigarren mailan geratzen ari direla, murrizketek estalita. Hala eta guztiz ere, uste dugu lankidetza deszentralizaturako abiatu nahi daitekeen ziklo berri orotan, espezializazioari buruzko galderari aurre egin beharko zaiola, galdera egokia dena, hain zuzen, lankidetzaren hedatze-aldirako zein egungo aldirako.

1.1. ZERI ESATEN DIOGU DESZENTRALIZAZIORAKO LAGUNTZA?

Espainiaren lankidetza deszentralizatuak azken bost urteotan atzerakada izan badu ere, aurrerapen nabarmenak egin dira, halaber, “deszentralizaziorako laguntza” zer den azaltzeko formulazio zehatzagoak eta akademikoki hobeto informatuak adierazterakoan.

2009an, akademikoen ekarpenak, literaturaren eta lankidetzaren praktikaren garapen berrienak, eta bere esperientzia uztartuz, **ALBOA**Nek “lankidetza deszentralizazioan” kontzeptua definitzea proposatu zuen, esku-hartzeen bi talde handi bereizita:

i) Erakunde publiko nazional edo nazioz azpitikoei zein gizarte zibileko erakundeei laguntzea, deszentralizazio-prozesua sendotzeko behar diren erreforma juridiko-politikoak egiteko (legedia garatzea eta aldatzea; deszentralizazio-prozesuaren buru izan behar duten organismo zentraleri laguntzea; zerga-deszentralizaziorako proposamenak egitea, etab.).

ii) Nazioz azpitiko gobernuei (tokiko zein eskualdeko gobernuei) laguntzea, eman behar dituzten zerbitzuak hobeto kudeatzeko gaitasunak sendotu, edo tokiko eta eskualdeko gizarte zibileko antolakundeekin harremanak ezartzeko eremuak indartu.

Beraz, koaderno honen izenburuko galdera **ALBOA**Nek “deszentralizaziorako laguntzari” buruz hitz egiteko proposatutako bi alderdi horietan adierazitakoa esan nahi dela ulertu behar da. Horrenbestez, eztabaidaren terminoak aurkeztu eta gero, koaderno honetan aurrera egingo dugu: deszentralizaziorako lankidetzako esperientzietan izandako irakaspen nagusiak laburbilduko ditugu, eta ondoren, lankidetzaren deszentralizatuak espezializaziorako duen ahalmena aztertu eta zenbait gomendio egingo ditugu.

2. Deszentralizazio-prozesuak: ikuspegi teorikoak eta esperientziatik ateratako irakaspenak

Garapen-bidean dauden herrialde askok eta askok egin dituzte estatuaren deszentralizaziorako erreformak azken bi hamarkadetan. Neurri batean, erreforma horiek elementu hauen artean ezarritako loturaren ondorio dira: batetik, deszentralizazioa, eta bestetik, pobrezia murriztearen bidezko garapena, gastu publikoaren eraginkortasun handiagoa eta herritarren jabekuntza. Hala ere, errealtateak bereari eusten dio, eta aipatutako lotura hori ezartzean, ez dira beti betetzen teoriaren eta plangintzen neurritasuna.

2.1. DESZENTRALIZAZIOAREN ALDEKO ARGUDIO TEORIKOAK

Deszentralizazioaren aldeko argudioak oso ikuspegi anitzakoak dira. Ikuspegi ekonomikotik, bi argudio nagusi daude. Lehenbizikoak deszentralizazioa komunitateen premiak eta eskaerak hobeto betetzeko mekanismoa dela onartzen du, komunitateek organismo zentralak baino hobeto egokituko baitituzte gastu-lehentasanak tokiko eskaeretara (federalismo-fiskala). Horrez gain, ikuspegi horren arabera, deszentralizazioak nazioz azpitiko gobernuen arteko lehia sortuko du, herritarren eskaerei hobeto erantzuteko norgehiagokan, eta gobernuek eraginkorragoak izateko pizgarria izango dute.

Bigarren argudio ekonomikoak deszentralizazioa lotzen du eskualdeko eta tokiko garapenerako estrategia sendotzearekin, globalizazioari aurre egiteko. Ekonomia- eta merkataritza-dinamika globaletan txerta daitezkeen “lehia-eremuak”

bilatzean, deszentralizazioa, globalizazioaren aurrez aurrekoa, lehia-eremu horiek sortzeko estrategia da (erregionalismoa).

Horrez gain, “kudeaketa publiko berriaren” ikuspegitik, deszentralizazioak zerbitzu publikoen hornikuntza eta herritarren asetasun-maila hobetzen dituela defendatzen da. Administrazioaren deszentralizazioaren bidez, administratzaile publikoek kudeaketa-eskumen gehiago dituzte, eta txikitu egiten da zerbitzuen administrazioaren eta bezeroen arteko tartea: administrazioak oso kontuan hartuko ditu bezeroen kezak edo erreklamazioak, horiei erantzuteko gaitasuna areagotu egingo du, eta horren ondorioz, zerbitzu hobea emateko pizgarria izango du.

Soziologiaren ikuspegietatik ere, deszentralizazioa herritarren parte-hartzearekin eta demokratizazioarekin lotu dute. Demokrazian sakontzea globalizazioaren aroko erronka bihurtu da. Hori dela eta, tokiko eremua berraurkitzen da, herritarren parte-hartze politiko eta sozialerako esparru gisa. Horrelako parte-hartzea demokraziarako “eskolatzat” ere har daiteke, eztabaidarako eta gatazkak konpontzeko ohiturak eskuratzeko eremua baita. Tokiko gobernua hautatzeko prozesuez gain, herritarrek politikak egiteko prozesuetan parte hartzeko mekanismoei zein horretarako antolatzen diren plataformei ere erreparatzen die ikuspegi horrek, herritarren batzordeak, GGKE-ak eta beste erakunde batzuk barne hartuta. Deszentralizazioa, beraz, demokrazia sendotzeko eta areagotzeko modutzat hartzen da, eta gizarte- eta politika-eragileak tokiko erabaki-hartzeko agendan xertatzeko tresnatzat.

Azkenik, pobreak eragindako kezka dela eta, deszentralizazioa pobreak aurka egiteko tresna baliagarritzat hartzen da, pobreak aurkako borroka baita lankidetzat-agentzien izateko arrazoi eta funtsezko helburua. Nolabait, 1990eko hamarkadan eta 2000ko hamarkadaren hasieran, estatuaren erreformaren eta pobreak murrizteko borrokaren agendek bat egin zuten. Horrela, orain arte denbora luzez erabat alde batera utzitako gai bat nolabaiteko garrantzia izaten hasi zen: deszentralizazioak gabeziei aurre egiteko izan zezakeen garrantzia.

2.2. ESPERIENTZIAREN BIDEZ IKASITAKO IRAKASPENAK

Bestalde, azken hamar urteotan ikerketa enpiriko ugari egin dira, deszentralizazioaren, pobreak aurkako borrokaren eta garapenaren arteko loturak aztertzeko. Errealitatea teoria baino askoz konplexuagoa eta askotarikoa dela egiaztatzen da. Honako hauek dira irakaspen nagusiak:

1. Deszentralizazioaren eta pobreziaren arteko lotura ez da automatikoa. Deszentralizazio-prozesuak **konplexuak eta batez ere politikoak dira**. Prozesu horietan, testuinguruarekin lotutako aldagaiek eta aldagai historikoek funtsezko eginkizuna betetzen dute.
2. Zerga-deszentralizazioak, diru-kutxa publikoak onbideratzen lagundu baina, **defizita eta ezegonkortasun makroekonomikoa** eragin dezake. Nazioz azpitiko gobernuek gastuek gora egitea eragin dezakete, eskumen-transferentzia gehiago lortzeko presioa eginez eta zor publikora joz. Gainera, atzera egin dezakete zerga-bilketako programak ezartzeko erabakiak hartzerakoan, neurri horien onarpenik eza dela eta (Prud'homme 1995).
3. **“Erakundeak bereganatzea”**² izeneko fenomeno gertatuz gero, deszentralizazioa kaltegarria izan daiteke pertsona eta talde pobreentzat.
4. Zenbait egileren ustez (Crook, 2003), hauek dira deszentralizazioaren eta garapenaren arteko loturan gehien nabarmentzen diren **faktore politikoak**: i) tokiko eta nazioko eliteen ezaugarriak; ii) kontuak emateko mekanismoak egotea edo ez; iii) desoreka sozio-ekonomikoaren maila; iv) finantza- eta administrazio-baliabideak esleitzeko sistema.
5. Zerbitzuen mailak hobera egin beharko luke teorian, herritarretik gertuko erakundeek baliabideak tokiko premietara hobeto egokituko lituzketelako, baina gerta liteke zerbitzuen kalitateak eta estaldura-mailak behera egitea pobreentzat, prestazioaren ardura tokiko gobernuei transferitzearekin bat ez badira **baliabideak eta administrazio-ahalmena transferitzen**.

Finean, gaur egun, deszentralizazioaren eta garapenaren arteko loturari dagokionez, ikuspegi zehaztuagoa hasi da nagusitzen, herrialdeen historia-, politika- eta gizarte-testuinguruan txertatzen dena. Izan ere, deszentralizazioak gobernantzan eragin positiboa izateko eta garapen-bidean dauden herrialdeetako bizi-baldintzak hobetzeko faktoreen azterketan sakontzen duten ikuspegiek ondorioztatzen dute deszentralizazioa, ondo diseinatuta badago, tresna indartsua izan daitekeela pobreziaren aurka borrokatzeko. Baina, gaizki diseinatuta egonez gero, hondamendia ere eragin dezake³.

² Erakundeak bereganatzea deritze tokiko eliteek tokiko erakundeen kontrola hartzeko baliatzen dituzten prozesuei. Pobreenen aldeko erreforma-izpi oro blokeatzen dute.

³ Hankla, C. R. (2009). When is fiscal decentralization good for governance? *Publius: The Journal of Federalism*, 39(4), 632-650.

2.3. LANKIDETZA DESZENTRALIZAZIOAN

Ildo beretik, baina nazioarteko lankidetza-agentziek deszentralizaziorako laguntzaren alorrean izandako esperientzien azterketa espezifikoa goan oinarrituta, zenbait ideia garrantzitsutan sakondu da; esaterako, “jabetzeko” zailtasunak “testuinguru zatikatueta”⁴ (horiek dira, hain zuzen, lankidetzaren esku-hartzeen testuinguru nagusiak) eta horrek lankidetzarako dakartzan erronkak.

Hortaz, adierazitako lehenbiziko erronka koordinazio horizontala eta bertikala litzateke; hau da, gobernu-mailen arteko koordinazioa eta prozesuan parte hartzen duten eragileen arteko koordinazioa. Lankidetzak hobeto lagundu dezake deszentralizazioan, gobernuko zenbait mailatako eragileekin lankidetza estuan aritzeko aukera izanez gero. Bigarren erronka eragileen aldakortasun handia da. Horren ondorioz, gerta liteke eragile egonkorrik ez egotea, deszentralizazioaren moduko prozesu konplexuetarako epe luzeko ikuspegia bermatzeko. Lankidetzak ezegonkortasun horren ondorio negatiboak arindu beharko ditu, jarraitutasuna eta epe ertain eta luzerako denbora-esparruak sustatuz.

Azkenik, koordinaziorik gabeko kanpoko esku-hartzeen erronka adierazten da. Erronka horrek lotura estua du lankidetza-sistemaren “ekintza kolektiboa”⁵ antolatzeke zailtasunekin. Erronka horri aurre egiteko gakoetako bat da bereiztea zer muga dituen eta zer aukera ematen dituen “borondate oneko” koordinazioak testuinguru desberdinetan.

2.3.1. *Bi estrategia-mota lankidetza-agentzietan*

Faust-en eta beste batzuen ustez (2008), gutxienez bi estrategia-mota daude lankidetza-agentziek jardura hauek egiteko: i) koordinazio bertikala eta horizontala sendotzea; ii) jarraitutasuna sustatzea; iii) emailen koordinazioa areagotzea. Lehenbiziko estrategia beste herrialde bateko homologo batekin lankidetzan aritzearen ikuspegi tradizionala da, herrialde hartzaileko aldaketa-eragileak sendotzeko, eta nazioko bazkideen parte-hartzeko prozesuak eta jabetza azpimarratuz.

⁴ Zatikatzeko politikoak hau adierazten du: batetik eta batez ere, alderdi politikoaren sistema sendorik ez dagoela, eta alderdiek ez dutela interesen bateratzaile gisa jarduten, haien arteko elkarreagin-jokoan interes orokorra ordezkatzeko moduan; eta, bestetik, eragile asko daudela egin daitezkeen deszentralizazio-erreforme berruzko beto-eskubidearekin.

⁵ Honela dio Owen Barderrek: “Lankidetza-agentzien arteko ekintza kolektiboaren arazoa emailen arteko zein emailen eta hartzaileen lehentasunen arteko aldeak dira. Ez litzateke ekintza kolektiborako arazorik egongo, agentzia bakoitzaren eragina beste agentzien ekintzekiko independentea balitz”. (Barder 2009:10).

1. Taula. Hartzaileetan arreta jartzen duten estrategia horien adibideak	
Udalerrien elkarteei, probintziei eta/edo eskualdeei laguntzea (koordinazio horizontala)	
Abantailak - Ordezkaragarritasuna - Adostasun-arloak identifikatzea	Eragozpenak - Oso politizatuta egotea - Epe luzerako zailtasunak - Baliabideengatiko norgehiagoka
Gobernuari zuzenean laguntzea, herrialde hartzailearen koherentzia sendotzeko	
Abantailak - Jabetza-printzipioa	Eragozpenak - Barne-inkoherentzia - Ezegonkortasuna
Alderdi politikoei laguntzea (koordinazio bertikala)	
Abantailak - Lana maila guztietan egitea - Koordinazio hobea	Eragozpenak - Epe laburrerako joerak - Pertsonalismoak - Neutraltasuna
Gizarte zibileko erakundeei laguntzea (koordinazio bertikala)	
Abantailak - Lana maila guztietan egitea - Koordinazio hobea - Egonkortasuna	Eragozpenak - Eragin txikiagoa - Isolamendu-maila handiagoa
“Deszentralizazio-motorrei” laguntzea	
Abantailak - Eragin handiagoa	Eragozpenak - Identifikatzeko zailtasunak - Dibertsifikazioa (arriskuak)

Iturria: Geuk egina, Faust et al (2008) oinarri hartuta.

Beste estrategian, emailean arreta jartzen duen horretan, lankidetzat-agentziak egin-kizun askoz aktiboagoa eta independenteagoa du, eta estrategia alternatibotzat edo osagarritzat erabil daiteke zatikatutako politika-sistemetan. Alde horretatik, agentzia hauek egiten saia daiteke: i) zenbait eragile nazionalen arteko koordinazio-lanaren eginkizuna bere egitea; ii) deszentralizazio-prozesuko eragile nolabait autonomo gisa jardutea; eta iii) ematen duen laguntzaren elkarrekiko koordinazioa hobetzea.

2. Taula. Adibideak

Agentziak deszentralizazioaren koordinaziorako eginkizuna bere egiten du
(proiektu pilotuekin hasita)

Abantailak

- Maila anitzeko lana

Eragozpenak

- Eragin txikia
- Epe luzerako inplikazioa
- Arrisku handiak
- Jabetzarik eza

Agentziak bitartekari zintzoaren eginkizuna bere gain hartzen du,
denen interesaren koordinatzaileen rola

Abantailak

- Maila anitzeko lana
- Koherentzia
- Jarraitutasuna

Eragozpenak

- Epe luzea
- Intentsiboa baliabideei dagokienez
- Jabetzarik eza

Nolanahi ere, bai herrialde hartzaileetan arreta jartzen duten estrategiek, bai agentzia emaileetan arreta jartzen dutenek, agerian uzten dute deszentralizazio-prozesuak oso-oso konplexuak direla; beraz, lankidetzak-agentziek prozesu horietan egin beharreko esku-hartzeak ere konplexutasun handikoak dira. Nazioarteko lankidetzak (eta batez ere, estatuetako lankidetzak-agentziek) deszentralizazio-prozesuetan egindako esku-hartzeen jarraipena egin duten egile gehienek elementu hauek azpimarratzen dituzte: epe luzerako denbora-esparrua proposatu behar dela eta tentu handiz aztertu behar direla testuinguru-aldaerak eta arriskuak.

Kasu-azterketa

Deszentralizazioari buruzko bederatzirakaspenak *Ikuspegi akademikoa*

Azken bi hamarkadetan deszentralizazio-prozesuen zein prozesu horiek gobernantzan eta pobrezia-aren aurkako borrokan dituzten eraginen arloan metatutako esperientzia lagungarria izan da arlo horretako ezagutza akademikoaren oinarriak jartzeko. Horri esker, deszentralizazioaren analistek eta planifikatzaileek zehaztasun handiagoz bereiz dezakete jardura eta esku-hartze jakin batzuek izan dezaketen eragina, eta modu orokorrean bada ere, deszentralizazioarako lankidetzaren arloko zenbait estrategia bidera ditzakete.

Charles Hanklak deszentralizazioaren arloko bederatzi irakaspen nagusi zehaztu ditu, hiru kategoriatan sailkatuta. Egilearen esanetan, ariketaren helburua da teoriaren eta praktikaren bederatzi irakaspen ateratzea, deszentralizatutako erakundeen diseinua hobetzeko. Oro har, egileak dio deszentralizazioak, kalitatezko gobernua eragiteko, herritarrek behar dituzten ondasun eta zerbitzu publikoak emateko gai izan behar duela, eta aldi berean, eskualdeen arteko desorekak eta separatismoa arindu behar dituela –edo gutxienez, faktore horiek ez areagotzea lortu–, eta egonkortasun makroekonomikoa babestu.

Jarraian, egileak proposatutako irakaspenak aurkeztuko ditugu, laburbilduta. Egileak, proposamen hori egiteko, sakon aztertu ditu munduko zenbait lekutan azken hamarkadetan abiatutako deszentralizazio-prozesuak:

Deszentralizazioa *benetakoa* eta *eraginkorra* izan dadin lortzea

1. Nazioz azpitiko gobernuari erantzukizun jakinak eta garrantzitsuak eskuordetu beharko litzaizkieke.
2. Nazioz azpitiko gobernuak gasturako nahikoa askatasun eta administrazio-ahalmena izan beharko lituzkete, beren erantzukizunak bete ahal izateko.
3. Nazioz azpitiko gobernuak zergak biltzeko ahalmena izan beharko luke, edo bestela, baldintzarik gabeko transferentzia arautuak jaso.

Nazioz azpitiko erakundeak *ordezkaritzakoak* eta *eraginkorrek* direla bermatzea

4. Nazioz azpitiko erakundeak demokratikoki hautatu beharko lirakeke.
5. Nazioz azpitiko erakunde politikoak ondasun publikoak hornitzeko diseinatu beharko lirakeke.

***Lehentasun nazionalak* babestea eta *batasun nazionalari* eustea**

6. Gobernu zentralak eskualdeen batasuna bermatzeko erabili beharko lituzke transferentziak.
7. Gobernu zentralak funts espezifikoak eta konpentsazio-funtsak erabili beharko lituzke helburu nazional zentralak sustatzeko eta nazioz azpitiko mailetan eragin positiboak izango dituzten ondasun publikoak hornitzeko.
8. Erreformatzaileek batasuna maximizatzeko eta gutxiengoak babesteko moduan diseinatu beharko lituzkete nazioz azpitiko erakunde politikoak.
9. Gobernu zentralak egonkortasun makroekonomikoa babestu beharko luke.

Azken bi hamarkadetan azterketa ugari egin dira eta balio handiko irakaspenak eskuratu dira deszentralizazio-prozesuei buruz⁶. Besteak beste, aipatzekoa da hobeto ulertu dela prozesu batez ere politikoak direla, epe luzerakoak, eta arrisku eta oztopo handiei aurre egin behar dietela. Halaber, nazioarteko lankidetzak deszentralizazio-prozesu horietan zer eginkizun bete duen argiago bereizi ahal izan da. Oro har, horrelako ikerketetan (lankidetzak deszentralizazioaren alorrean), lankidetzak-agentziek (normalean, gobernu zentralen agentziak) deszentralizazio-prozesuetan duten eginkizunaren azterketan jarri da arreta, eta balio handiko ondorio eta irakaspenak atera dira.

Lankidetzak deszentralizatuak deszentralizaziorako laguntzan –deszentralizazioa prozesu gisa zein zerbitzuen kudeaketa deszentralizaturako laguntza gisa hartuta– betetako eginkizunaren azterketa sakonagoa balio handiko zenbait ekimenen bidez egin da. Horietako batzuk dira EB-Latinoamerika Lankidetzak Deszentralizatuaren Behatokia eta Tokiko Demokraziaren Behatokia, Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak (HTGB) erakundearena. Ekimen horien bidez, diagnostikoa doitu ahal izan da, bai eta jardunbide onak bildu eta laguntzaren eraginkortasunari eta garapenari buruzko gogoetan aurrera egin ere, tokiko gobernuen eginkizunean arreta berezia jarrita.

Gizarte zibilak deszentralizazioan (deszentralizazioa prozesu gisa zein zerbitzuen kudeaketa deszentralizatu gisa ulertuta) duen eginkizuna (tokiko, nazioko zein mundu osoko esparruan) ez da arlo nagusietako bat izan ikerketa horietan. Izan ere, ikerketetan, gehiago erreparatu zaie lankidetzak-agentzia handiei edo tokiko gobernuen eta haien antolaketa-plataformen arteko “zuzeneko lankidetzak” deritzenari. ALBOANen, uste dugu beharrezkoa dela lankidetzak deszentralizatuari eta deszentralizaziorako laguntzari buruzko ikuspuntua gehitzea, gizarte zibilaren eta haren eginkizunaren ikuspegitik. Baina, horretarako, uste dugu lehenik eta behin Espainiako lankidetzak deszentralizatuaren errealitatea eta abiapuntuko baldintzak aztertu behar direla, lankidetzak horrek espezializaziorako duen ahalmena ebaluatze aldera.

⁶ Ikus, adibidez, Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak (HTGB; www.cities-localgovernments.org) erakundearen deszentralizazioari eta tokiko demokraziari buruzko bi GOLD txosten globalak. Erakunde horrek 2006an sustatutako Deszentralizazioaren Behatokiak argitaratu ditu.

3. Espainiako lankidetza deszentralizatuaren ahalmenaren azterketa

3.1. ESPEZIALIZAZIORAKO ABIAPUNTUAK

Lankidetza deszentralizatuak, hazkunde handiko eta sendotze instituzionaleko prozesua izan ondoren, beheraldi sakona eta desegite-prozesua izan du. Hori guztia oso denbora-epe laburrean gertatu da, munduko laguntza-sistema eraldatze sakonak izaten ari den unean. Hori dela eta, lankidetza deszentralizatuak bi erronkari egin behar die aurre. Batetik, bizkor bilakatzen ari den sistema berrira egokitzea, eta bestetik, sistema propio bat berreskuratu eta eratzea, bere gaitasunak eta balioak baliatuta, oso kontrako testuinguruan.

Beraz, hona hemen atal honetako abiapuntuetako bat: *aztertzea* ea lankidetza deszentralizatuak, egungo desegite-prozesuko testuinguruan erronka horri aurre egiteko **gaitasuna** duen, espezializazioaren bidez, eta zehazki, deszentralizaziorako laguntzan espezializatzearen bidez. Espainiako lankidetza deszentralizatu osoaren espezializazioa planteatzen da, deszentralizatutako gobernuen eta haien herritarren politika- eta gizarte-ezaugarrien antzekotasunak aintzat hartuta, sistemako eragile bakoitzaren banakako espezializazioa proposatu baino gehiago (adibidez, autonomia-erkidego edo udal jakin baten espezializazioa).

Beste abiapuntu bat da *onartzea* lankidetza deszentralizatuak **abantaila** batzuk badituela lankidetza zentralen edo sortzen ari diren lankidetza-moten aldean. Abantaila horiek dira, esaterako, herritarrekiko hurbiltasuna eta defentsa-organismoen garrantzia txikiagoa izatea, baina baita izatezko ibilbidea eta berezko

ezaugarriak izatea ere, espezializaziorako aukera “baldintzatzen” dizkietenak. Alde horretatik, garrantzi handia ematen zaio lankidetza deszentralizatuaren espezializazioa lortzen laguntzen edo eragozten duten *baldintzen markoari*.

3.2. BALDINTZEN MAPA

Horretarako, **ALBOANen**, espezializaziorako *baldintzen mapa* osatu dugu. Baldintzen mapak lankidetzaren aukerak eta mugak zehazten ditu, hiru alderdi hauetan: i) borondate politikoa eta giza gaitasunak zein gaitasun teknikoak; ii) joko-arauak edo indarreko konpromisoak; eta iii) lankidetzaren izatezko ibilbidea. Alderdi horietako bakoitzerako, lankidetzaren *status quoa* neurtzeko eta alderatzeko adierazleak diseinatu dira, lagungarriak izan daitezkeenak espezializazioaren eremua zehazteko.

Beraz, aztertzen den lehenbiziko baldintza **sendotasun instituzionala** da. Baldintza horrek lotura du borondate politikoarekin zein lankidetza deszentralizatuaren giza gaitasunekin eta gaitasun teknikoekin. Neurtzeko, hiru adierazle erabiltzea proposatzen da: lankidetza-sailen botere-ahalmena, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoen bolumena, eta dauden giza gaitasunak eta gaitasun teknikoak.

Bigarren baldintza **indarreko joko-arauak** dira. Hein handi batean, lege-esparruek eta gobernu bakoitzak onetsitako planifikazio-esparruek zehazten dituzte joko-arauak, honako hauei dagokienez: lankidetza-esparruak (garapenerako hezkuntza, nazioarteko lankidetza eta gizaldekoko ekintza); laguntzaren eremu geografikoak eta sektoreak; eta laguntza-modalitateak (zuzena edo zeharkakoa).

Hirugarren baldintza lankidetza deszentralizatuaren **izatezko ibilbidea** da. Horren bidez, benetan finantzatutako garapenerako lankidetza neurtzen da, eta hori lagungarria izan daiteke aztertzeko zenbaterainokoa den jada espezializazio geografikoa eta sektoriala. Arreta berezia jartzen da deszentralizazioaren arloko espezializazioaren azterketan, “gobernua eta gizarte zibila”⁷ esparrua sakon aztertuta, lankidetzaren esparru horretan txertatzen baitira ongien espezializazioan laguntzeko esku-hartzeak.

⁷ Gobernua eta gizarte zibilaren sektorea horrela sailkatzen du ELGAko GABek. Sektore horri dagokion kodea 150 da.

3. Taula. Espezializazioarako baldintzen mapa

Espezializazioarako baldintzen mapa	
Baldintza	Adierazlea
1. Sendotasun instituzionala	- Lotura organikoa eta funtzionala. - Baliabide ekonomikoak. - Giza gaitasunak eta gaitasun teknikoak.
2. Joko-arauak	- Legeak. - Planifikazio-esparruak.
3. Ibilbidea	- Sektoreen eta geografia-eremuen arabera espezializazio-maila. - Zooma “gobernu eta gizarte zibila” sektoreari.

Iturria: Geuk egina.

3.2.1. Lehenbiziko baldintza: Sendotasun instituzionala


Lankidetzaren sendotasun instituzionala funtsezkoa da espezializatzeko benetako aukerak ebaluatzeko, esperientziak metatzeko, eta erkidegoetako eta tokiko gobernuekin edo gobernu zentralarekin jardutean sinergiak baliatzeko. Gaitasun horrek zerikusi handia du sailek botere politikoarekin duten loturarekin eta gobernu deszentralizatuen erabakietan eragiteko gaitasunarekin. Gaitasun hori lankidetzako arlo edo sail espezifikoaren kontrolerik at geratzen da. Hauek dira lankidetzak autonomia-erkidegoko edo tokiko gobernu batean zenbateko sendotasuna duen zehazteko faktoreak: lankidetzak organigraman duen kokapena, kontseilarien gainerako lehentasunak, eta ekonomia- eta politika-koiuntura.

Hortaz, lankidetzaren sailen kokapen organikoari dagokionez, ez dago homogeneotasunik autonomia-erkidegoetako zein foru-aldundietako eta udaletako gobernuen ikuspegian. Gehienetan, kanpo-ekintzako edo gizarte-ongizateko sailletan sartu dute lankidetzaren arloa. Gutxiagotan gertatzen bada ere, zenbait autonomia-erkidegotan, lankidetzaren zerbitzuek edo -zuzendaritzek beste sail edo arlo batzuekin izan dute lotura organikoa; esaterako, emigrazio-, ingurumen-, kirol- eta gaztedi-gaiak jorratzen dituzten sail edo arloekin. Halaber, ez dago irizpide bateraturik lankidetzak sail berean izan behar duen mailari (edo hierarkiari) buruz. Oro har, nagusi dira lankidetzaren hirugarren mailan kokatzen duten sailak; hau da, lankidetzaren zerbitzuak eratu ohi dituzte, sail edo departamentu jakin bateko zuzendaritza zabalagoen barruan.

Autonomia-erkidego batzuetan, nazioarteko lankidetzarako agentzia espezi-
fikoak sortzea erabaki dute. Haien garrantzia dela eta, aipatzeko modukoak dira
Andaluziakoa, Kataluniakoa eta EAEkoa, nahiz eta bakarrak izan ez. Adibidez, Ex-
tremadurak eta Balear Uharteek ere badituzte lankidetz-agentziak, lan-ibilbide
aipagarria dutenak. Tokiko erakundeetako lankidetzari dagokionez –hau da, fo-
ru-aldundietakoa eta udaletakoa–, aukera hobetsietako bat izan da lankidetz
kokatzea gizarte-ongizatearekin eta/edo herritarren parte-hartzearekin lotutako
sailetan edo zinegotzitzetan. Kasu gehienetan, tokiko erakundeetako lankidetzak
lotura funtzional eta organikoa du beste jarduera-arlo batzuekin. Hori dela eta,
oso gutxitan izaten dira nazioarteko lankidetzan berariaz jarduteko langileak.

Jarraian ageri den mapan, grafikoki adierazten da autonomia-erkidegoetako zer
esparru funtzionalekin dagoen lotuta lankidetz 2013an. Ikur txiki baten bidez
adierazten da zer autonomia-erkidegok duten lankidetz-agentzia espezifikoa.

1. Grafikoa. Lankidetzaren kokapena autonomia-erkidegoetako gobernuetan (2013)




Lankidetza deszentralizatuaren atzeraldian (2008-2013) atzerakada nabari da zenbait autonomia-erkidegotako gobernuetan. Izan ere, sailak eta departamentuak elkartu egin dituzte, eta horrenbestez, lankidetza-politika are gehiago sakabanatu da. Datu zehatzagoak izan ezean, badirudi tokiko erakundeetako lankidetzak (udalena batez ere) portaera egonkorragoa izan duela (edo hobeto esanda, atzerakada txikiagoa), baita ere lankidetzak udaletan duen kokapenari dagokionean.

Bestalde, baliabide ekonomikoen eskuragarritasuna da politika baten posizionamenduaren adierazlea. Argi dago 2008-2013 aldian murrizketak egon direla. Murrizketok sektorea izugarri urritzea eragin dute eta haren ahultasunaren adierazle dira. Espainiako lankidetzaren hedatze-aldiko zein atzeraldiko ezaugarri orokorretako bat aurrekontu-esleipenen **aldakortasuna** izan da; hau da, lankidetzarako funtsen igoerak zein jaitsierak **ez dira proportzionalak** izan guztizko aurrekontuen igoera eta jaitsierekiko.

ALBOANen, kalkulatu egin dugu lankidetzarako aurrekontuek zer igoera eta/edo jaitsiera izan duten batez beste guztizko aurrekontuen aldean, lankidetzaren arloan garrantzia duten zazpi autonomia-erkidegotan, identifikatutako bi aldietan: 2004-2007 eta 2008-2012. Gutxi gorabeherako kalkulu horren emaitzak aukera ematen du egiaztatzeko lankidetzarako aurrekontuen aldakortasuna handiagoa dela guztizko aurrekontuena baino. Gure kalkuluen arabera, hautatutako autonomia-erkidegoen guztizko aurrekontuak %10 igo ziren, batez beste, identifikatutako lehen aldian (2004-2007), eta %3 jaitsi, batez beste, bigarren aldian (2008-2011⁸). Lankidetzarako aurrekontuak berriz, %17 igo ziren, batez beste, lehen aldian, eta %30 jaitsi ziren, batez beste, bigarrenean.

⁸ Ekonomia eta Ogasun Ministerioak autonomia-erkidegoen aurrekontu-likidazioei buruz argitaratutako azken datuak 2011koak dira.

2. Grafikoa. Lankidetzarako aurrekontuen eta guztizko aurrekontuen alderaketa. Batezbesteko igoeren eta jaitsieren hurbilketa



Iturria: Geuk egina, honako hauek oinarri hartuta: DGPOLDE 2004-2007 datu-baseetako datuak, PACI 2008, 2009, 2010 eta 2011 jarraipen-dokumentuetako datuak, eta autonomia-erkidegoen 2011. urtera arteko aurrekontu-likidazioei buruzko datuak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioarenak (helbide honetan hartuak: <http://serviciosweb.meh.es/apps/publicacionliquidacion/aspx/SelConsultaDC.aspx>).

Oharra: Aipatu behar da alde handiak daudela kalkulu horretarako hautatutako zazpi autonomia-erkidegoen (Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Madril, Nafarroa, EAE eta Valentzia) batez bestekoetan, bai igoeretan bai jaitsieretan (kasu batzuetan, %70etik gorako jaitsierak ere egon dira).

Halaber, aipatu behar da **gardentasunarekin eta kontuak ematearekin** lotutako **arazoak** detektatu ditugula lankidetzaren arloan, ariketa hau planteatzerakoan. Batzuetan, inkoherezia handiak daude autonomia-erkidegoek aurkeztutako datuen eta PACI dokumentuetan ageri diren datuen artean. Halaber, alde nabarmena egoten da, behin eta berriz, aurrekontu-aurreikuspeneko eta -exekuzioko datuen artean, bai eta atzerapen handia ere datuak argitaratzerakoan. Atzerapen hori, hain zuzen, hedatze-alditik dator.

Azkenik, lankidetzaren deszentralizatura bideratutako **gaitasun teknikoei eta giza gaitasunei** dagokienez, erronka handia da jakitea zenbat pertsona (funtzionarioak zein kontratatupekoak) dauden nazioarteko lankidetzari buruzko esparru publikoan jarduten, bai eta pertsona horien ezaugarriak jakitea ere, prestakuntzari, profilei eta/edo lan-kargeri dagokienez. Lankidetzaren hedatze-aldiaren amaierarako (2008), hobekuntza nabarmena detektatu zen giza gaitasunetan (langile

kualifikatu gehiago kontratatu izanaren ondorioz), baina atzeraldian, kontratazioak gelditu egin dira, edo atzerakada izan dute. Beraz, giza gaitasunei eta gaitasun teknikoei dagokienez, atzeraldiak lankidetzaren deszentralizatuaren izandako eraginaren balantze globala egin beharko litzateke.

Ondorio gisa, lankidetzaren deszentralizatuak sendotasun instituzionala galdu du, asko eta bizkor. Kokapen organiko eta funtzionalari, aurrekontu-bilakaerari, eta giza gaitasunei eta gaitasun teknikoei erreparatuz gero, ahulezia-seinale kezkarriak ikusten dira. Hala ere, garrantzitsua da adieraztea alde handiak daudela autonomia-erkidego batetik bestera, eta tokiko erakundeetako lankidetzaren egoera, oro har, egonkorragoa dela. Gardentasunari eta kontuak emateari dagokionez, erronka handia dago, eta horiek argitzeak aukera emango luke egoeraren balantze zehatzagoa egiteko, bost urteko krisialdiaren ondoren.

3.2.2. Bigarren baldintza: Joku-arauak

Hartutako konpromisoak

Lankidetzaren funtzionamendurako aurretik zehaztutako irizpideak egoteak (laguntza-modalitatea; helburuak, sektoreen eta/edo xedeen arabera...) aukera ematen du espezializatorako zenbateko tartea dagoen ebaluatzeko. Adibidez, herrialde-multzotako jakin batean edo alor jakin batzuetan lankidetzaren jarduerak egiteko legezko betekizuna egonez gero, mugak egon daitezke zer geografia-eremutan edo sektoretan jardun erabakitzean. Lankidetzaren joku-arauak administrazioen erabakitzeak ahalmena murriz dezakete, edo haien jardueraren esparrua mugatu; adibidez, joku-arauak muga izan daitezke espezializatzeko eta beste joku-arau batzuen arabera beste eragile batzuekin jarduteko erabakia hartzeko.

Oro har, konpromisoen instituzionalizazio-maila altua dagoela ikusten da, lankidetzaren hedatze-aldiko (2008ra arte) lankidetzaren planak onartzearen bidez gertatu dena. Batetik, jomugako helburu kuantitatiboaren zenbait erreferentzia gautzatuz joan ziren. Denetan, %0,7aren helburua betetzeko eskatzen zen, baina ez zen beti zehazten ez helburua betetzeko egutegia, ezta erreferentziazko zenbatekoa ere (guztizko aurrekontua, deskontuekin edo deskonturik gabe). Halaber, nabarmena izan da lankidetzaren eta garapenaren printzipioen alorrean egindako kontzeptu-esparruen sendotasuna, bai eta zenbait finantziario-tresna (esaterako,

proiektuak eta programak) erabiltzearen aldeko apustu argia ere. Izan ere, gobernu deszentralizatu gehienek erabiltzen dituzte tresna horiek.

Geografia-eremuekin lotutako lehentasunei dagokienez, lankidetzarako zenbait herrialde eta/edo herrialde-multzo identifikatu dira, eta erreferentziatzko esleipenak herrialde-multzoka ezarri dira, banakako herrialdeka baino gehiago. Hein txikiagoan, autonomia-erkidegoetako zenbait gobernuak erreferentziatzko ehunekoak zehaztu dituzte aurrerapen txikiena duten herrialdeentzat.

Lankidetzza-sektoreen zein lehentasun horizontalen eta zeharkako lehentasunen arabera hartutako konpromisoei dagokienez, zailagoa da azterketa konparatua egitea. Nolanahi ere, ikusten da esparru horretan txikiagoa dela sektorekako esleipen espezifikoak egiteko joera, oinarritzko gizarte-zerbitzuetarako 20/20ko erreferentziaz aparte. Azkenik, zenbait lankidetzatan, ehunekoak ezarri dira laguntzaren modalitateari dagokionez. Horrelakoetan, ehunekoak zehaztu ohi dira lankidetzza zuzenerako eta zeharkako lankidetzarako (bai GGKE-en bidezkoan bai beste eragile batzuen bidezkoan). Laguntza-motaren arabera hartutako konpromisoei dagokienez, antzeko egitura hautematen da autonomia-erkidegoetako gobernuetan. Garapenerako lankidetzarako (dela zuzena, dela zeharkakoa) esleitutako zenbatekoek aurrekontuen zati handiena eskuratzen dute (guztizkoaren %70-80 inguru). Garapenerako hezkuntzari garrantzia ematen zaio, gobernu nazionalarekin konparatuta, eta funts guztien %6tik %11ra bitarte eskuratzen du. Gizaldekoko laguntzarako, berriz, guztizkoaren %3tik %10era bitarte esleitzen da.

Bestalde, azpimarratu behar da zeharkako lankidetzak garrantzi handia duela lankidetzza deszentralizatuan. Praktikan, aldeak daude leku batetik bestera: 2007an, funtsen %47 izan zuen Katalunian, eta %95 Nafarroan; 2011n, berriz, %36 izan zuen Kanarietan, eta %96 Nafarroan eta EAEn. Andaluzia, Katalunia, Balearrak eta Kanariak kenduta, ehuneko hori %85 baino gehiago izan ohi da; beraz, azpimarratu behar da ezaugarri hori garrantzitsua dela lankidetzza deszentralizatuaren ahalmena ebaluatzeko. Zuzeneko lankidetzza gehien ematen duten bi autonomia-erkidegoek lankidetzza-agentzia espezializatuak dituztenak dira; beraz, galdetu daiteke zertan eta zenbateraino diren hobeak zuzeneko lankidetzaren baldintzak zein maniobra- eta malgutasun-esparrua, espezializatu ahal izateko. Halaber, aztertu behar da zeharkako lankidetzak espezializaziorako zailtasun handiagoak dituen ala ez, “eskarian” jatorria duen heinean eta “laguntza-katea” deritzon sortutako partaidetzaz-harreman konplexuak dituela kontuan hartuta. Halaber, egokia da galdetzea zenbateko ahalmena duen lankidetzza mistoa sustatzeko, eta

diskurtsoan zein praktikan orain arte nagusi izan den zuzeneko/zeharkako lankidetzaren banalerroa gaingidetzeko.

Horrez gain, zeharkako lankidetzak izan ditzakeen malgutasun- eta eskuragarritasun-esparruei eta formula mistoetarako izan dezakeen ahalmenari buruzko galderak beste gai sakonago bat azaleratzen du: zer eginkizun eman nahi zaio gizarte zibilean lankidetzaren deszentralizatuari, zerbitzu espezializatuen ematearen eginkizuna ala gizarte zibilaren ahotsa izatearen eginkizuna? Zenbait egilek adierazi dute tentsio handiak daudela laguntzaren eraginkortasunaren eta gizarte zibilaren izaera autonomo eta independentearen arteko ikuspegiaren artean (Pratt 2009). Zeharkako lankidetzak lankidetzaren deszentralizatuan duen garrantzia dela eta, eztabaida horrek garrantzi berezia du autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeetako lankidetzaren testuinguruan, espezializazioari buruzko eztabaidan.

Azkenik, zenbait plangintza aipatuko ditugu. Gehienetan, erreferentziatzeko denbora-esparruak amaituta daude. 17 autonomia-erkidegoetatik, indarreko bost plan gidari baino ezin izan ditugu lortu: Aragoi, Balear Uharteak, Katalunia, Extremadura, Galizia. Gainerako autonomia-erkidegoei dagokienez, argitzeke dago beste plangintzaren bat egingo duten (oro har, hirugarrena izango litzateke), aurreko plangintzak luzatuko dituzten edo beste bideren bati ekingo dioten. Oro har, egiaztatu da plangintza-ahalegin handia egin dela hedatze-aldian, eta plangintza gutxi, berriz, atzeraldian.

3.2.3. *Hirugarren baldintza: Egindako ibilbidea*

Lankidetzaren deszentralizatuaren espezializazioa


Sendotasun instituzionalarekin eta joko-arauekin batera, izatezko ibilbideak ere zehazten du lankidetzaren espezializaziorako eremua. Ibilbide horrek adieraz dezake zenbaterainokoak diren lankidetzaren esperientzia eta ezagutzak sektore edo herrialde jakin batean; hau da, “ahalmena” identifikatzeko balio dezake.

Esparru horretan, garrantzitsua da jakitea non eta zer gaitan laguntzen duen gaur egun lankidetzak, banaka nahiz multzo gisa hartuta, bai eta nola laguntzen duen jakitea ere. Zoritzarrez, eskura dauden datuek ez dute ematen lortutako emaitzei buruzko informaziorik; beraz, izatezko ibilbidea aztertzean,

lankidetzaren geografia-eremuekin, sektoreekin eta laguntzaren modalitateekin lotutako joerak hauteman baino ezin da egin.

Lankidetzaz deszentralizatuak azken urteetan (2007tik 2011ra) erabilitako funtsen azterketak aukera ematen du egiaztatzeko Espainiako lankidetzaz deszentralizatua Latinoamerikako eta Afrikako herrialde jakin batzuetan eta beste bi lurralde jakinetan (Palestina eta Sahara) kontzentratzen dela. Jarraian ageri den mundu-mapan, PACI 2007-2011 dokumentuetako datuak oinarri hartuta, adierazten dira Latinoamerikako eta Afrikako zer herrialde izan diren gogokoenak Espainiako lankidetzaz deszentralizatuarentzat.

3. Grafikoa. Espainiako lankidetzaz deszentralizatuaren (autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeetako lankidetzaz) herrialde eta lurralde gogokoenak



Iturria: Geuk egina, PACI 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011 jarraipen-dokumentuak oinarri hartuta. Hiru autonomia-erkidegori dagokienaz, ezin izan da zehaztu Latinoamerikako eta Afrikako zer herrialdek jaso duten funts gehien 2007-2013 aldian.

Beraz, mundu-mapari begiratzuz gero, agerikoa da lankidetzaz deszentralizatua nola-bait espezializatuta dagoela Latinoamerikako eta Afrikako herrialde gutxi batzuetan, eta lankidetzaz deszentralizatua nabarmena dela Palestindar Lurraldeetan eta saharar herrietan. 17 autonomia-erkidegoetako azken plangintzei erreparatuz gero, kontzentrazio geografikoko joera hori egiazta daiteke. Izan ere, guztietan aipatzen dira

Palestindar Lurraldeak eta saharar herriak, eta aldi berean, lankidetza esparru jakin batean kontzentratzeko borondatea adierazten da; esate baterako, Kataluniak eta Extremadurak 10-11 herrialdetan kontzentratu nahi dute beren lankidetza, eta beste bi erkidegok 35 herrialdetik gorako eremua adierazten dute. Gehienek, ordea, 20-25 herrialde inguruko eremuan kontzentratzeko helburua dutela adierazten dute.

Bestalde, sektorekako kontzentrazioari dagokionez, lankidetza deszentralizatuaren hedatze-aldiko zein atzeraldiko datu eskuragarriak kontuan hartuta eta horrelako azterketetan behar den zuhurtziaz jokatuta, esan daiteke lankidetza deszentralizatuak, oro har, hiru izatezko ibilbide nabarmen dituela, eta horiek bihur daitezkeela “espezializaziorako esparru” edo “abantaila”.

4. Taula. Lankidetza deszentralizatuaren izatezko hiru ibilbide	
Ondorio nagusiak. Lankidetza deszentralizatuaren izatezko hiru ibilbide	
1. ibilbidea	Lankidetza deszentralizatuaren lehentasuna oinarritzko gizarte-zerbitzuak dira, eta batez ere, hezkuntzaren eta osasunaren azpisektoreak.
2. ibilbidea	Bigarren lehentasuna honako hauen artean banatzen da: “governua eta gizarte zibila” azpisektorea, eta “garapen produktiboa” eta “sektore anitzen artekoa” sektoreak.
3. ibilbidea	Konparazioz, “garapenerako hezkuntza” nabarmentzen da.

Iturria: ALBOAN. Geuk egina.

2004-2011 aldian erabilitako funtsen azterketa eginez gero, agerian geratzen da zenbateko garrantzia duten lankidetza deszentralizatuan oinarritzko gizarte-zerbitzuek, eta batez ere hezkuntzaren eta osasunaren azpisektoreek. Nolanahi ere, alde handiak daude autonomia-erkidego batetik bestera, eta esparru hori beheranzko joera izaten ari da, “governua eta gizarte zibila” azpisektorearen (oinarrizko gizarte-zerbitzuen barruan sartzen da) zein “ekoizpen-sektoreak” eta “sektore anitzak” esparruen mesedetan.

Nabarmenak dira erkidego batzuen arteko aldeak: batzuek hezkuntzari eman diote lehentasun handiagoa, eta beste batzuek osasunean edo gai espezifikoetan inbertitu dute; esaterako, Aragoik ur-horniduraren eta -arazketaren azpisektorean inbertitu du gehiago. 2011n, 17 autonomia-erkidegoek oinarritzko gizarte-zerbitzuetan egindako batezbesteko inbertsioa %65ekoa izan zen (%23 inguru

hezkuntza-proiektuetan, eta %11 inguru, berriz, osasunean). Tokiko erakundeek lankidetzan, ehuneko hori %80 izan zen (%17 hezkuntzan, %12 osasunean, eta %32 gobernua eta gizarte zibilean).

“Gobernua eta gizarte zibila” (kodea = 150) eta “garapenerako hezkuntza” (kodea = 998/99820) azpisektoreei dagokienez, aipagarria da bigarrenaren ehunekoak nolabait egonkorrak direla (guztizkoaren %7-%10 bai hedatze-aldian bai atzeraldian), eta “gobernua eta gizarte zibilak” azpisektoreak apur bat gorantz egiteko joera duela; izan ere, zenbait autonomia-erkidegotan ahalegin handia egiten ari dira horretan (Euskadin, adibidez, guztizkoaren %30 baitu). Jarraian ageri den taulan, bi azpisektore horiek 17 autonomia-erkidegoetan eta tokiko erakundeetan 2007-2011 aldian izandako guztizko zenbatekoak eta ehunekoak aurkezten ditugu.

5. Taula. Lankidetzaren deszentralizatuaren ibilbidea bi jarduera-sektoretan (2007-2011)*												
		2007	%	2008	%	2009	%	2010	%	2011	%	
Andaluzia	GGZ	8.044.801	10	11.814.773	12	17.478.107	18	11.030.755	14	899.759	6	
	GH	3.570.409	4	4.138.850	4	6.177.377	6	9.091.068	11	5.944.759	41	
	Guztira	81.798.541		96.775.351		99.333.442		80.656.809		14.588.908		
Aragoi	GGZ	718.152	9	619.771	6	1.173.713	11	881.288	8	675.530	10	
	GH	795.482	10	837.048	9	943.176	9	1.005.186	9	696.412	10	
	Guztira	8.008.170		9.610.565		10.603.015		11.260.180		6.902.553		
Asturias	GGZ	1.164.000	9	1.380.668	12	1.809.277	16	1.654.536	14	2.088.193	18	
	GH	980.000	8	504.000	4	806.336	7	1.112.256	9	1.070.827	9	
	Guztira	12.938.623		11.776.201		11.325.801		12.149.189		11.374.076		
Balearrak	GGZ	615.917	4	1.315.558	8	1.239.108	8	1.183.846	12	0	0	
	GH	1.044.856	6	864.803	6	1.093.727	7	875.666	9	97.146	6	
	Guztira	16.414.377		15.594.107		14.924.160		9.867.813		1.659.926		
Kanariak	GGZ	721.160	4	849.773	5	306.745	2	604.192	5	338.700	14	
	GH	737.545	4	512.956	3	329.558	2	28.000	0	6.000	0	
	Guztira	17.778.637		18.746.030		16.225.134		12.050.300		2.403.002		
Kantabria	GGZ	469.611	9	445.481	9	408.996	7	0	0	561.372	14	
	GH	692.343	13	919.754	18	968.632	17	1.111.039	54	233.709	6	
	Guztira	5.469.245		5.116.708		5.850.388		2.039.289		3.933.283		
Katalunia	GGZ	8.004.176	14	11.361.096	18	10.212.745	18	13.370.848	24	5.469.718	17	
	GH	7.650.403	13	7.445.017	12	8.075.492	14	8.547.087	15	6.560.928	20	
	Guztira	57.660.748		62.827.889		57.301.759		56.734.335		33.005.358		
Gaztela- mantxa	GGZ	4.259.061	12	3.287.601	8	4.321.540	9	3.851.535	10	0	0	
	GH	1.316.680	4	2.504.233	6	2.893.932	6	2.688.602	7	0	0	
	Guztira	36.218.580		40.341.400		46.390.370		38.125.839		356.043		
Gaztela eta León	GGZ	840.289	6	201.447	2	500.171	4	320.750	3	292.887	3	
	GH	437.075	3	587.364	6	1.178.735	10	781.497	7	912.668	10	
	Guztira	13.114.683		10.333.747		11.886.118		10.514.280		9.154.381		

* Taula honetan aztertzen diren jarduera sektoreak hauek dira: Gobernua eta Gizarte Zibila (GGZ) eta Garapenerako Hezkuntza (GH).

		2007	%	2008	%	2009	%	2010	%	2011	%
Extremadura	GGZ	615.677	6	1.070.802	12	1.649.006	12	1.441.244	10	1.276.161	14
	GH	1.083.607	11	1.439.904	16	1.306.360	9	1.447.785	10	1.195.925	13
	Guztira	9.897.984		9.087.860		13.774.550		14.396.489		9.166.574	
Galizia	GGZ	761.355	7	719.830	7	950.475	8	358.150	3	285.501	4
	GH	775.133	7	650.733	7	884.429	7	457.711	4	687.858	10
	Guztira	10.703.097		9.873.774		12.289.957		10.748.153		7.000.733	
Errioxa	GGZ	169.000	4	115.400	3	158.000	4	255.657	6	65.015	2
	GH	471.836	11	544.316	13	457.475	12	464.610	11	465.093	15
	Guztira	4.436.818		4.078.224		3.866.889		4.224.228		3.180.134	
Madril	GGZ	2.848.827	9	7.473.128	19	7.039.966	18	5.262.228	15	895.935	8
	GH	2.788.705	9	3.036.665	8	1.934.257	5	2.249.484	6	982.203	9
	Guztira	30.973.098		38.979.100		38.078.638		35.836.242		10.650.489	
Murtzia	GGZ	554.319	11	243.556	5	486.072	10	107.319	5	0	0
	GH	179.950	4	213.907	4	204.669	4	12.000	1	16.050	7
	Guztira	5.121.307		5.130.756		4.744.959		2.188.329		246.305	
Nafarroa	GGZ	2.148.307	11	2.665.598	13	3.340.116	16	2.857.899	14	2.566.644	14
	GH	971.186	5	1.238.081	6	1.160.699	6	1.331.852	6	668.872	4
	Guztira	19.017.170		20.699.796		20.649.818		20.508.760		18.263.294	
Euskadi	GGZ	8.746.654	30	9.906.952	24	10.324.739	26	14.457.351	33	11.817.219	26
	GH	2.530.628	9	4.683.794	11	3.598.887	9	3.534.848	8	2.667.204	6
	Guztira	29.379.900		40.837.201		39.649.544		44.352.387		44.916.683	
Valentzia	GGZ	1.723.943	6	6.420.107	10	3.437.113	9	3.242.833	14	1.434.177	10
	GH	1.981.926	6	4.341.165	7	3.034.484	8	3.088.441	13	2.074.928	14
	Guztira	30.629.358		64.815.651		39.143.379		23.241.013		15.048.562	
Tokiko erakundeak	GGZ	12.267.632	10	11.481.540	8	21.202.791	14	17.338.321	14	17.015.576	18
	GH	6.345.043	5	8.860.290	6	11.378.617	8	12.240.856	10	9.562.948	10
	Guztira	121.499.227		148.775.501		147.182.837		121.391.523		95.291.534	

Iturria: ALBOAN. Geuk egina, PACI 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2011 jarraipen-dokumentuak oinarri hartuta.

Ehuneko horiek kontuan hartuta, ondoriozta al daiteke lankidetzazko deszentralizazioa deszentralizaziorako laguntzan espezializatu daitekeela?

Nekez. Datuen oinarriak oso ahulak dira. Hain zuzen, proiektu batzuen kodifikazioa baino ez dugu, ez diguna aukerarik ematen honako hauei buruz hitz egiteko: kalitatea; tokiko lehenasunetikiko harmonizazio- eta bateratze-maila; tokian bertan jarraian egotea; sektore eta azpisektore jakin batean esperientzia eta eza-gutzak metatzea. Baliabideak esleitzean dauden joerei buruz hitz egiteko aukera baino ez dute ematen datuek; hau da, baliabideak sektore eta azpisektore jakin batzuetara eta leku jakin batzuetara bideratzen direla. Hain zuzen, ibilbide orokorra oinarritzko gizarte-zerbitzuetarako laguntza dela adierazten dute (hezkuntzak batezbesteko protagonismo handiagoa du, eta gobernu eta gizarte zibilaren azpisektoreak, berriaz, gorantz egiteko joera, motel bada ere). Datuek, halaber, lankidetzazko deszentralizatuaren herrialde gogokoenak zein diren adierazten dute: Latinoamerikako herrialdeak (Peru batez ere, baina Guatemala eta Honduras ere bai), Afrikakoak (Maroko bereziki, baina Kongoko Errepublika Demokratikoa ere bai), Palestindar Lurraldeak eta saharar herriak.

Beraz, Espainiako lankidetzazko deszentralizatuak deszentralizaziorako laguntzarako duen ahalmena ebaluatzeko, hiru aldagai-multzo dituen baldintza-mapak bat hartu dugu abiapuntutzat. Oro har, hauek dira Espainiako lankidetzazko deszentralizatuaren ezaugarri nabarmenenak: ahulezia instituzionala, hazkundearen ezegonkortasuna eta funtsen zenbatekoen jaitsiera; gaitasun teknikoen eta giza gaitasunen atzerakada; hedatze-aldian egindako planifikazio-ahalegin handia, eta erreferentziazko denbora-esparruei buruzko ezjakintasuna egungo aldirako; eta herrialde-kopuru txiki batean eta hiru jarduera-esparru zabaletan kontzentratutako izatezko ibilbidea. Hiru jarduera-esparru horiek, hain zuzen oinarritzko gizarte-zerbitzuak (hezkuntza eta osasuna batez ere, baina gobernu eta gizarte zibilaren azpisektorerako laguntza gero eta handiagoa dela), garapen produktiboa eta garapenerako laguntza dira. Datuei erreparatuta, sektore horietan egindako inbertsioa handia izan dela eta denboran nolabaiteko jarraipena izan duela jakin dezakegu, baina ezin dugu jakin “gobernu eta gizarte zibila” sektoreari dagokion kodea duten proiektuek loturarik duten deszentralizazioarekin.

Lankidetza-politiketarako nabarmen atzerakorra den ingurune honetan, borondate politikoa eta politika horien aldeko gizarte-legitimazioa ahulak dira, eta espezializaziorako ahalmena baldintzatzen dute. Nolabaiteko ahalmena hauteman daiteke, izatezko ibilbideari eta sektore osoaren ibilbideari erreparatuz gero, baina azterketa sakonagoa beharko litzateke, martxan dauden proiektuen datu kualitatiboak jakinda, ahalmen hori zehaztasun handiagoz ebaluatzeko eta gizartearen eta politikarien aurrean balioan jartzeko, horiekin ere lan egin behar baita laguntzarako eta garapenerako nazioarteko sisteman eraginkortasun handienaz parte hartu ahal izateko.

4. Ondorioak

Espainiako lankidetza deszentralizatuaren espezializazioari buruzko eztabaida lasaia alde batera geratu da, honako hauen ondorioz: murrizketen tamaina eta gogortasuna; eta lankidetza-politikek lurralde osoan azken bost urte hauetan izandako desegite-prozesua.

Eztabaida horretan, aintzat hartzen zen Espainiako lankidetza deszentralizatuak esparru eta/edo leku jakin batzuetan espezializatzeko aukera, eta deszentralizatorako laguntzan espezializatzea ere zehazki aipatzen zen. Eztabaidaren terminoak apurka-apurka finduz joan ziren: “espezializazioaren” inplikazioak argiago zeuden eta deszentralizazio-prozesu ororen konplexutasunari buruzko ezagutza hobetu zen.

Eztabaida horren terminoetan, ordea, jarrera defentsiboak eta lankidetza deszentralizatuari buruzko adierazpen nolabait erretorikoak nagusitu dira, eta nahaste handia dago lankidetzaren zifrei buruz. Egiteke dago lankidetza deszentralizaturako politikek 5 urteko krisiaren ondoren zer egoeran dauden jakiteko balantze orokorra. Berezi garrantzitsua da honako hauek argitzea: autonomia-erkidegoetako eta tokiko erakundeetako giza gaitasunen eta gaitasun teknikoen egoera, eta egindako plangintzak (askotan, haien erreferentziazko denbora-esparruak jada amaitu dira).

Beste esparru batzuetan, lankidetza deszentralizatuaren espezializazioari buruzko eztabaida aberastuz joan da zenbait ekarpeni eta esperientzia ugariri esker. Nabarmentzekoak dira Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak (HTGB) erakundearen behatokiaren eta EB-Latinoamerika Lankidetza Deszentralizatuaren Behatokiaren ekarpenak. Halaber, lankidetzari eta deszentralizazioari buruzko literatura espezifikoan,

deszentralizazio-prozesuen konplexutasunaren ezagutza sakondu da, bai eta lankidetzako zenbait esku-hartzek (batez ere, lankidetzarako gobernu-agentziek egindakoak) prozesu horietan izan duten eginkizunaren ezagutza sakondu ere. Nolanahi ere, ikerketak bat datoz honako hauetan: deszentralizazioaren izaera erabat politikoa dela, epe luzeakoa dela, eta arriskuak daudela.


Hartu deszentralizatorako laguntza deszentralizazio-prozesurako laguntza gisa, hartu zerbitzuen kudeaketa deszentralizaturako laguntza gisa, hau da garrantzitsua: aztertzea zer eginkizun betetzen duen gizarte zibilak, nola egituratzen den tokiko, herrialdeko eta nazioarteko esparruan, eta nolakoak diren gizarte zibilaren eta esparru instituzionalen arteko egituratze-, kontzertazio- eta/edo gatazka-prozesuak. Bereziki beharrezkotzat jotzen dugu ikuspegi hori txertatzea Espainiako lankidetzaren deszentralizatuaren esku-hartzei buruzko ikerketa enpirikoetan; batez ere, deszentralizazio-prozesuekin lotutako jardunbideak eta esperientziak biltzen badira.

Horrekin lotuta, uste dugu beharrezkoa dela “zuzeneko laguntza” eta “zeharkako laguntza” dikotomia gainditzea. Gaur egun, bereizketa hori da nagusi sektorearen (publikoan zein gobernu kanpokoan) diskurtsoan eta kontuak emateko sisteman, eta ez du uzten ikusten zenbait esparruk (alderdi anitzekoak, baina baita tokiko esparruak ere) proposatzen dituzten formula berritzaileagoak eta eragile anitzekoak. (Ikus 5. atalean erakutsitako ereduak, 39. orrialdean).

Espainiako lankidetzaren deszentralizatuaren baliabide-esleipenaren azken hamar urteotako ibilbideak geografia- zein sektore-sakabanaketa handia adierazten du, baina baita ere kontzentrazioa dagoela herrialde gogoko gutxi batzuetan (Latinoamerikakoak eta Afrikakoak), eta lankidetzaren deszentralizatuaren presentzia etengabea dela Palestindar Lurraldeetan eta saharar herrian. Sektorekako espezializazioari dagokionez, inbertsioen ibilbidean, oso nabarmenak dira garapenerako hezkuntzaren sektoreko inbertsioak eta oinarritzako gizarte-zerbitzuen sektorearen eta garapen produktiboaren sektorearen nagusitasuna. Datu-multzoen irakurketa xehetasunez eginda, autonomia-erkidegoko edo tokiko erakundek, espezializazio-nitxoak daudela adieraz dezaketen ibilbideak hauteman daitezke, edo gutxienez, autonomia-erkidego edo tokiko erakunde batzuk behin eta berriz inbertitzen ari direla azpisektore jakin batzuetan. Datuak batera hartuta, “gobernu eta gizarte zibila” azpisektorerako laguntza goranzko joera dagoela ikusten da, baina baliabide-esleipenei buruzko datuetatik, ezin da ondorioztatu joera horrek deszentralizazioarekin lotura duenik.

Lankidetzak, oro har hartuta, espezializazio geografikorako eta sektorialerako ahalmena duela esatea arriskutsua da, baina esan, esan daiteke. Eragileak (autonomia-erkidegoko gobernuak eta/edo tokiko erakundeak) bakarka hartuta konparaziozko abantaila batzuk dituela ere igarri daiteke, nahiz eta hori oso nabarmena izan ez. Baina Espainiako lankidetza deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan bene-benetan espezializatuta dagoela pentsatzea konplikatuagoa da, dela sektore guztia hartuta, dela eragile bakoitza bere aldetik hartuta. Ibilbidean, badaude noranzko hori erakusten duten zenbait zantzu, baina oraingoz, ez da deszentralizaziorako laguntzan aurrera batera egiteko borondate-adierazpenik, ez baterako eragintza politiko baten moduko eginkizuna betetze aldera (erdi mailako gobernuetan edo tokiko gobernuetan ahotsa izatea, esaterako), ezta alor horretan tokian-tokian edo sarean esku-hartzeak izate aldera. Bitartean, gizarte-eta politika-ingurunea gero eta kontrakoagoa da lankidetza-politiketarako, eta atzerakada izan da, halaber, eztabaidaren terminoetan, oraingoz etenda egon arren egokia izaten jarraitzen duen eztabaida horretan.

5. Eranskina



6. Bibliografía

- Barder, O. (2009). Beyond planning: markets and networks for better aid. Working paper 185. Washington DC: Center for Global Development.
- Barder, O. (2009). Beyond planning: markets and networks for better aid. Working paper 185. Washington DC: Center for Global Development.
- CGLU-UCLG. (2009). Decentralization and local democracy in the world: First global report by united cities and local governments 2008. Bartzelona: CGLU-UCLG.
- CGLU-UCLG. (2010). Local government finance: The challenges of the 21st Century. Second global report. Bartzelona: CGLU-UCLG.
- Crook, R., & Sverrisson, A. S. (2003). Does decentralization contribute to poverty reduction?. Changing Paths: International Development and the New Politics of Inclusion. Ann Arbor: University of Michigan Press.
- Faust, J., Arneth, F., Von der Gotz, N., Harbers, I., Illerhues, J., Schloms, M. C. (2008). Political fragmentation, Descentralization and Development Cooperation. Bonn: German Development Institute (DIE).
- FIIAP. (2008). España en un mundo globalizado. Ciudadanía, cohesión social e institucionalidad: construyendo gobernanza democrática. Madril: FIIAP.
- Hankla, C. R. (2009). When is fiscal decentralization good for governance? Publius: The Journal of Federalism, 39(4), 632-650.
- Intermón-Oxfam. (2005). La realidad de la ayuda 2005-2006. Bartzelona: Intermón-Oxfam.

- Malé, J. (2006). Especificidades de la cooperación descentralizada pública: Actores, contenidos y modelos. Barcelona-Montevideo: Observatorio De Cooperación Descentralizada UE-AL.
- Malé, J. (2009). La cooperación descentralizada pública UE-américa latina en perspectiva: Una mirada sobre su evolución reciente. Barcelona-Montevideo: Anuario Del Observatorio De La Cooperación Descentralizada Unión Europea-América Latina.
- OCDE-DAC. (2007). DAC Peer Review: Full Report. Paris: OCDE.
- OCDE-DAC. (2011). DAC Peer Review: Full Report. Paris: OCDE.
- Prud'homme, R. (1995). On the dangers of decentralization. Policy Research Working Paper 1252. Washington DC: The World Bank.
- Villoria, M. (2008). España y la gobernanza democrática: la asistencia en construcción de institucionalidad como nicho de liderazgo de nuestra Acción Exterior, en España en un mundo globalizado. Ciudadanía, cohesión social e institucionalidad: construyendo gobernanza democrática. Madrid: FIIAP.